Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abenduaren 19a, astelehena — 238 — Lunes, a 19 de diciembre de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*572/2022 Foru Agindua, abenduaren 13koa, Foru Agindu hauek aldatzen dituena: abenduaren 26ko 592/2016, abenduaren 21eko 591/2016, urtarrilaren 21eko 27/2018, abenduaren 29koa 530/2020 eta abenduaren 29ko 530/2020 Foru Aginduak, hurrenez hurren 181, 196, 198, 208 eta 289 ereduak onesten dituztenak.*

Zerga Administrazioak ahalik eta informazio fiskalik fidagarriena izan dezan agindu zaizkion laguntza, egiaztapen, ikerketa eta kontrol eginkizunak betetzen jarraitzeko, beharrezko gertatzen da etengabe eguneratzea informazio hori ematea ahalbidetzen duten tresnak eta, bereziki, hornidura hori egiteko prestatzen diren ereduak, betiere jasotzen den informazio fiskalaren kalitatea hobetzearren.

Foru agindu honen xedea da eredu informatibo bana arautzen duten bost foru agindu aldatzea, 181, 196, 198, 280 eta 289 ereduei dagozkienak hain zuzen.

196, 198 eta 280 ereduek aldaketa komun bat dute informazioa emateko epeari dagokionez, urtarrileko lehen hogeita hamar egun naturaletan aurkeztetik urtarril osoan aurkeztera igarotzen baita orain. Aldi berean, foru agindua baliatzen da 181 eredua eta gorago aipatu diren beste hiruak aurkezteko epea arautzen duen artikuluaren idazketa homogeneizatzeko.

Bestalde, eredu guztietan aldaketak daude eman beharreko informazioaren edukiari dagokionez, haien erregistro diseinuak aldatzea dakartenak. Jarraian, deskribatzen da zer aldaketa nagusi sartzen diren horietako bakoitzean.

Foru aginduaren 1. artikuluan 181 eredua aldatzen da, «Mailegu eta kredituen eta ondasun higiezinekin lotutako finantza eragiketen aitorpen informatiboa» izenekoa. Zehazki, erregistroko diseinuak aldatzen dira diseinu horietako 172. posizioa hartzen duen «Eragiketaren jatorria» eremuan gako berriak sartzeko, eta helburua da haren barruan kasu berriak jasotzea ekitaldian egindako eragiketa zehatzago deskribatzeko, zergadunari ematen zaion informazioaren kalitatea eta kudeaketa hobetzearren.

Horrela, lau gako berri sartzen dira «Eragiketaren jatorria» eremuan: K eta L gakoak (sorburuko entitateak eta helmugakoak bat-egite eta berregituratze sozietarioen berri emateko, hurrenez hurren), eta T eta V gakoak (sorburuko entitateak eta helmugakoak ekitaldian zehar egiten diren eskualdaketa, subrogazio eta entitate aldaketen berri ere emateko, hurrenez hurren). Alde horretatik, azpimarratzen da eremu horiek ezin direla erabili zorren berregituratze eragiketak aitortzeko, eragiketa horiek M gakoarekin identifikatuko baitira, aurreko ekitaldietan bezala.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 572/2022, de 13 de diciembre, por la que se modifican las Órdenes Forales 592/2016, de 26 de diciembre, 591/2016, de 21 de diciembre, 27/2018 de 21 de enero, 550/2017, de 18 de diciembre y 530/2020, de 29 de diciembre, reguladoras de los modelos 181, 196, 198, 280 y 289 respectivamente.*

Al objeto de que la Administración tributaria disponga de la información fiscal más fiable para continuar llevando a cabo las funciones de asistencia, comprobación, investigación y control encomendadas, resulta necesario una constante actualización de las herramientas que permiten el suministro de dicha información, y en particular, de los modelos habilitados para llevar a cabo dicho suministro, mejorarando así la calidad de la información fiscal que se recibe.

Mediante la presente orden foral se trata de modificar las órdenes forales reguladoras de cinco modelos informativos: los modelos 181, 196, 198, 280 y 289.

Una modificación común a los modelos 196, 198 y 280, es la relativa a los plazos para el suministro de la información, que pasa de los treinta primeros días naturales del mes de enero a todo el mes de enero. Al mismo tiempo, se aprovecha la orden foral para homogeneizar la redacción del artículo regulador del plazo de presentación del modelo 181 y de los tres modelos más arriba citados.

Por otra parte, en todos los modelos hay modificaciones relativas al contenido de la información a suministrar, que suponen cambios en sus diseños de registro. A continuación se describen las principales modificaciones operadas en cada uno de ellos.

El artículo 1 de la orden foral incluye la modificación del modelo 181, Declaración informativa de préstamos y créditos, y operaciones financieras relacionadas con bienes inmuebles. En este sentido, se modifican los diseños de registro con la finalidad de incluir nuevas claves en el campo «Origen de la operación», que actualmente ocupa la posición 172 de los diseños de registro, con el objetivo de recoger nuevos supuestos que describan de forma más precisa la operación efectuada en el ejercicio, mejorando de esta manera la calidad de la información y la gestión de la misma para la o el contribuyente.

En concreto, se han incluido en el campo mencionado, «Origen de la operación», cuatro nuevas claves: las claves K y L (para informar de las operaciones de fusión y reestructuración societaria por la entidad de origen y por la entidad de destino, respectivamente), así como las claves T y V (para informar de las transmisiones, subrogaciones y cambios de entidad que se produzcan en el ejercicio, tanto por la entidad de origen como por la entidad de destino, también respectivamente). En este sentido, se destaca que ninguno de estos campos deberá utilizarse para declarar operaciones de reestructuración de deudas que, al igual que en ejercicios anteriores, se identificarán con la clave M.

EK\CV GAO-I-2022-07846

Ereduaren erregistro diseinuak eragiketaren jatorriari buruzko gako berrietara egokitzeko, honako eremu hauek ere aldatzen dira: «Eragiketaren data», «Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoa», «Kapitala amortizatzeagatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoa», «Ekitaldian ordaindutako interesen edo/eta gauzen bidezko ordainsarien zenbatekoa», «Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoa», «Abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoa» eta «Ohiko etxebizitzara bideratutako finantzaketaren portzentajea».

2. artikuluak 196 eredua aldatzen du, «Mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik ondorioztatutako kontraprestazioagatik lortutako errenten eta kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreren aitorpen informatiboa eta urteko laburpena» izenekoa. Aldaketak beste gako bat sartzen du «Alta gakoa» eremuan, eta finantza entitatearen bategite edo berregituratze sozietario baten ondorioz ekitaldian zer konturi eman zaien alta identifikatzea du helburu. Horretarako, 2. motako bi erregistrotako diseinuak aldatzen dira 196 ereduan: aitortuaren erregistroko diseinuak, eta baimenduaren erregistroko diseinuak.

3. artikuluak 198 eredua aldatzen du, «finantza-aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitorpen informatiboa», hain zuzen. Horrela, ereduan aurrenik aldatzen da «Emandako/jasotako diru konpentsazioa» izeneko eremua, haren edukian zehaztapen bat sartzeko. Hain zuzen ere, adierazten da eremu horretan bereziki jarri beharko dela zer zenbateko jaso duen akziodunak tituluak saldu eta, salmenta horretan truke ekuazioa gainditzeagatik, titulu horiek ez dutenean eskubiderik ematen jasotako tituluen akzio oso bat jasotzeko. Zergadunaren balore zorroari buruz ematen den informazioaren kalitatea hobetzea du horrek helburu. Bigarrenik, «Entitate aitortzailean duen partaidetza portzentajea» eremua ere aldatzen da, eremu horren zati hamartarrak hartzen dituen posizioen kopurua handitzeko. Horrela, eremuak 421etik 427ra bitarteko posizioak hartzen ditu orain 198 ereduaren 2. motako erregistroko diseinuetan.

4. artikuluak 280 eredua aldatzen du, «epe luzerako aurrezki planen urteko aitorpen informatiboa» izenekoa, eta erregistroko diseinuetan aldaketa tekniko bat sartzea du helburu; zehazki, «Epe luzerako aurrezki planaren iraungipena» eremuan, beste iraungitze kasu bat gehitzen da hartzailearen heriotza gertatzen denerako.

Azkenik, ekitaldi guztietan egin ohi den bezala, 5. artikuluak abenduaren 29ko 530/2020 Foru Agindua aldatzen du, «Elkar laguntzaren esparruan finantza kontuei buruz informatzeko erabili beharreko urteko aitorpena» izena duen 289 eredua» onesten duena. Aldaketaren xedea da I. eta II. eranskinetako edukia eguneratzea informazio trukearekin konprometituta dauden herrialdeen egungo egoerara egokitzeko, eta, horretarako, zerrendan sartzen dira 2023tik aurrera informazio trukea egingo duten herrialde berriak.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Aldatzea 592/2016 Foru Agindua, abenduaren 26koa, «Mailegu eta kredituen eta ondasun higiezinekin lotutako finantza eragiketen aitorpen informatiboa» aurkezteko 181 eredua eta haren aurkezpen moduak onesten dituena, eta «Kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantza sistemari atxikitako enpresariek eta profesionalek egindako eragiketen urteko aitorpen informatiboa» aurkezteko 170 eredua aldatzen duena.*

Honela aldatzen da 592/2016 Foru Agindua, abenduaren 26koa, «Mailegu eta kredituen eta ondasun higiezinekin lotutako finantza eragiketen aitorpen informatiboa» aurkezteko 181 eredua eta haren aurkezpen moduak onartu, eta «Kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantza sistemari atxikitako enpresariek eta profesionalek egindako eragiketen urteko aitorpen informatiboa» aurkezteko 170 eredua aldatzen duena:

Con la finalidad de adaptar los diseños de registro del modelo a las nuevas claves de origen de la operación, se han modificado también los campos «Fecha de la operación», «Importe del préstamo, crédito u otra operación financiera», «Importe abonado en el ejercicio en concepto de amortización de capital», «Importe abonado en el ejercicio en concepto de intereses y/o retribución en especie», «Importe abonado en el ejercicio en concepto de gastos derivados de la financiación ajena», «Saldo pendiente a 31 de diciembre» y «Porcentaje de la financiación destinado a la vivienda habitual».

A continuación, el artículo 2 modifica el modelo 196, declaración Informativa y resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del capital mobiliario y rentas obtenidas por la contraprestación derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, al objeto de introducir una nueva clave dentro del campo «Clave de alta» que identifique las cuentas que se han dado de alta en el ejercicio como consecuencia de una fusión o reestructuración societaria de la entidad financiera. Para ello se han modificado, tanto los diseños de registro de tipo 2, registro de declarado, como los diseños de registro de tipo 2, registro de autorizado del modelo 196.

El artículo 3 modifica el modelo 198, declaración informativa anual de operaciones con activos financieros y otros valores mobiliarios. Así, en primer lugar, se modifica el campo «Compensación monetaria entregada/recibida» del modelo, para incluir una precisión en su contenido, indicando que, particularmente deberá consignarse en dicho campo el importe percibido por el accionista como consecuencia de la venta de aquellos títulos, que, por exceder de la ecuación de canje, no den derecho a percibir una acción entera de los títulos recibidos, mejorando así la calidad de la información de la cartera de valores de la o del contribuyente. En segundo lugar, se modifica también el campo «Porcentaje de participación en la entidad declarante» que pasa a ocupar las posiciones 421 a 427 de los diseños de registro de tipo 2 del modelo 198, con la finalidad de ampliar el número de posiciones que ocupa la parte decimal de este campo.

El artículo 4 modifica el modelo 280 de declaración informativa anual de planes de ahorro a largo plazo, al objeto de introducir una modificación técnica en sus diseños de registro, concretamente en el campo «Extinción del plan de ahorro a largo plazo», para recoger un nuevo supuesto de extinción como consecuencia de fallecimiento de la tomadora o del tomador.

Por último, el artículo 5 modifica, como viene siendo habitual en cada ejercicio, la Orden Foral 530/2020, de 29 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 289 «Declaración informativa anual de cuentas financieras en el ámbito de la asistencia mutua», para actualizar el contenido de sus anexos I y II a la situación actual de los países comprometidos al intercambio de información, añadiendo en el listado a los nuevos países con los que se intercambiará a partir del ejercicio 2023.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Modificación de la Orden Foral 592/2016, de 26 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 181 «Declaración informativa de préstamos y créditos, y operaciones financieras relacionadas con bienes inmuebles», y sus formas de presentación, y se modifica el modelo 170 «Declaración informativa anual de las operaciones realizadas por los empresarios o profesionales adheridos al sistema de gestión de cobros a través de tarjetas de crédito o débito».*

Se introducen las siguientes modificaciones la Orden Foral 592/2016, de 26 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 181 «Declaración informativa de préstamos y créditos, y operaciones financieras relacionadas con bienes inmuebles», y sus formas de presentación, y se modifica el modelo 170 «Declaración informativa anual de las operaciones realizadas por los empresarios o profesionales adheridos al sistema de gestión de cobros a través de tarjetas de crédito o débito»:

EK\CV GAO-I-2022-07846

*Bat.* 5. artikulua honela geratzen da idatzita:

«5. artikulua. 181 eredua aurkezteko epea.

181 eredua urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean aurkeztuko da, biak barne, eta aurreko urteari dagokion informazioa jaso beharko du.»

*Bi.* «Eragiketaren jatorria» eremua (172. posizioa foru aginduaren II. eranskineko 181 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan –aitortuaren erregistroan–), honela geratzen da idatzita:

«— *Posizioak:* 172.
*Izaera:* Alfabetikoa.
*Eremuen azalpena:* Eragiketaren jatorria.

Eragiketaren jatorria identifikatu behar da, gako alfabetiko hauen arabera:

«A»: Eraketa.

«M»: Aldaketa.

«C»: Deuseztapena.

«J»: Aldaketa eta Deuseztapena aitortzen den ekitaldian.

«F»: Aurreko ekitaldietatik datozen eragiketak.

«K»: Bat-egite eta berregituratze sozietarioak (sorburuko entitatea).

«L»: Bat-egite eta berregituratze sozietarioak (helmugako entitatea).

«T»: Eskualdaketak, subrogazioak, entitate aldaketak (sorburuko entitatea).

«V»: Eskualdaketak, subrogazioak, entitate aldaketak (helmugako entitatea).

Finantzaketa eragiketa aitorpenaren xede den ekitaldian formalizatu bada, «A» gakoa jarriko da. Gainerako ekitaldietan «F» gakoa jarriko da, salbu eta eragiketa aldatu edo deuseztatu bada, eta salbu eta ekitaldian bat-egiteak, berregituratze sozietarioak, eskualdaketak, subrogazioak eta entitate aldaketak egon badira.

Aitortzen den finantzaketa eragiketaren datuetako bat ekitaldiaren barruan aldatzen bada, haren xede den higiezinaren destinoa ere barne, eta beste gako espezifikorik ez bada bete behar, «M» gakoa jarriko da. Horrelakoetan, erregistro bat egingo da eragiketa jatorri bakoitzeko, halako moduz non, entitate aitortzaileak eragiketa formalizatzeko erabilitako modua aintzat hartuta, ondoko hau adierazi beharko baita:

— «A» edo «F» gakoa: eragiketaren jatorrizko baldintzen arabera eta urtarrilaren 1etik eragiketa aldatu arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k). Kasu honetan, ez dago zertan bete «Abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoa» eremua.

— «M» gakoa: eragiketaren baldintza berrien arabera eta aldaketa egunetik abenduaren 31ra arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k), betiere eragiketa aurrez deuseztatu ez bada.

Aitortzen den eragiketa ekitaldiaren barruan deuseztatu bada eta beste gako espezifiko bat ez bada adierazi behar, C» gakoa jarriko da. Horrelakoetan, ekitaldi hasierarik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k).

Ekitaldi berean aldaketa eragiketa bat eta deuseztapen eragiketa bat gertatzen bada, honako hauek jarriko dira:

— «A» edo «F» gakoa: eragiketaren jatorrizko baldintzen arabera eta urtarrilaren 1etik eragiketa aldatu arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k). Kasu honetan, ez dago zertan bete «Abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoa» eremua.

*Uno.* El artículo 5 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 5. Plazo de presentación del modelo 181.

El plazo de presentación del modelo 181 será el comprendido entre el 1 y el 31 de enero de cada año, ambos inclusive, en relación con la información referida al año inmediato anterior.»

*Dos.* El campo «Origen de la operación», que ocupa la posición 172 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños de registro del modelo 181, contenidos en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— *Posiciones:* 172.
*Naturaleza:* Alfabético.
*Descripción de los campos:* Origen de la operación.

Se consignará el origen de la operación de acuerdo con las siguientes claves alfabéticas:

«A»: Constitución.

«M»: Modificación.

«C»: Cancelación.

«J»: Modificación y Cancelación en el ejercicio objeto de declaración.

«F»: Operaciones con origen en ejercicios anteriores.

«K»: Fusiones y reestructuraciones societarias (entidad origen).

«L»: Fusiones y reestructuraciones societarias (entidad destino).

«T»: Transmisiones, subrogaciones, cambio de entidad (entidad origen).

«V»: Transmisiones, subrogaciones, cambio de entidad (entidad destino).

Se hará constar la clave «A» cuando la operación de financiación se formalice en el ejercicio objeto de la declaración. En los demás períodos se hará constar la clave «F», salvo modificación o cancelación de la operación y salvo los supuestos de fusiones, reestructuraciones societarias, transmisiones, subrogaciones y cambio de entidad en el ejercicio.

Cuando, en el curso de un ejercicio, tenga lugar la modificación de cualquiera de los datos de la operación de financiación objeto de declaración, incluido el cambio de destino del bien inmueble objeto de la misma, y no proceda la cumplimentación de otra clave específica, se hará constar la clave «M». En estos casos se realizará un registro por cada origen de operación, de tal forma que, atendiendo a la forma en que la entidad declarante ha instrumentado la operación, se hará constar:

— Clave «A» «ó «F»: se cumplimentará el/los registro/s de acuerdo con las condiciones originales de la operación y los importes abonados desde el 1 de enero hasta la fecha de la modificación de la operación. En este caso no será necesario cumplimentar el campo «Saldo pendiente a 31 de diciembre».

— Clave «M»: Se cumplimentará el/los registro/s, de acuerdo con las nuevas condiciones de la operación y los importes abonados desde la fecha de modificación hasta el 31 de diciembre, salvo cancelación anterior.

Se hará constar la clave «C» cuando en el curso del período se cancele la operación objeto de declaración y no proceda la cumplimentación de otra clave específica. En este caso se cumplimentará el/los registro/s de acuerdo con los importes abonados desde el inicio del período hasta la fecha de cancelación.

En el caso en que en el mismo ejercicio se produzca una operación de modificación y otra de cancelación se hará constar:

— Clave «A» o «F»: se cumplimentará el/los registro/s de acuerdo con las condiciones originales de la operación y los importes abonados desde el 1 de enero hasta la fecha de la modificación de la operación. En este caso no será necesario cumplimentar el campo «Saldo pendiente a 31 de diciembre».

EK\CV GAO-I-2022-07846

— «J» gakoa: Aldaketa egunetik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k). Kasu honetan, ez dago zertan bete «Abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoa» eremua.

Ekitaldian bat-egite eta/edo berregituratze sozietario bat gertatzen bada (K eta L gakoak), honako hauek jarriko dira:

— «K» gakoa: entitate xurgatuak edo sorburukoak beteko du gako hau.

Bat-egite edo berregituratze sozietarioa egin arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k). Kasu honetan, ez dago zertan bete «Abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoa» eremua.

— «L» gakoa: entitate xurgatzaileak edo helmugakoak beteko du gako hau.

Bat-egite edo berregituratze sozietarioaren egunetik abenduaren 31ra arte ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k), eragiketa lehendik deuseztatu denean izan ezik.

Ekitaldian kreditu eskualdaketa, subrogazio edo aldaketa bat egiten bada beste entitate baten alde (T eta V gakoak), honako hau jarriko da:

— «T» gakoa: gako hau sorburuko entitateak beteko du, alegia, entitate eskualdatzaileak edo mailegu lagatzaileak.

Eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin arte zordunak ordaindutako zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k). Zenbateko horretan ez da inoiz sartuko amaierako aparteko amortizazioari dagokiona, hau da, helmugako entitateak zorra kitatzeko ordaindutako zenbatekoa. Kasu honetan, ez dago zertan bete «Abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoa» eremua.

— «V» gakoa: mailegua hartzen edo jasotzen duen entitateak beteko du gako hau.

Eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin den egunetik abenduaren 31ra bitarteko zenbatekoak kontuan hartuta beteko da/dira erregistroa(k).

Eremu hau bete gabe utziko da finantzaketa eragiketen xedea ez bada izan ondasun higiezin bat eskuratzea, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, ezartzen duen bezala, hau da, bete gabe utziko da «Eragiketaren azpigakoa» eremuan «5» balioa jarri denean.»

*Hiru.* «Eragiketaren data» eremua (103-110 posizioak foru aginduaren II. eranskineko 181 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan –aitortuaren erregistroan–), honela geratzen da idatzita:

«— *Posizioak:* 103-110.
*Izaera:* Numerikoa.
*Eremuen azalpena:* Eragiketaren data.

Mailegua, kreditua edo beste edozein finantza eragiketa zer egunetan eratu edo aldatu den jarriko da. Eremu hau hirutan banatuta dago:

103-106: Numerikoa Urtea.

107-108: Numerikoa Hilabetea.

109-110: Numerikoa Eguna.

Deuseztatze eragiketen kasuan («C» letra «Eragiketaren jatorria» eremuan), maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren eraketa data jarriko da eremu honetan, salbu eta geroago aldaketa eragiketa baten berri eman bada, kasu horretan aldaketa data jarriko baita.

— Clave «J»: Se cumplimentará el/los registro/s, con los importes abonados desde la fecha de modificación hasta la fecha de cancelación. En este caso no será necesario cumplimentar el campo «Saldo pendiente a 31 de diciembre».

En el caso de que se produzca una fusión y/o reestructuración societaria en el ejercicio (claves K y L), se hará constar:

— Clave «K»: se cumplimentará esta clave por la entidad origen o absorbida.

Se cumplimentará el/los registro/s, con los importes correspondientes hasta la fecha de la fusión o reestructuración societaria. En este caso no será necesario cumplimentar el campo «Saldo pendiente a 31 de diciembre».

— Clave «L»: se cumplimentará esta clave por la entidad de destino o absorbente.

Se cumplimentará el/los registro/s, con los importes correspondientes desde la fecha de la fusión o reestructuración societaria hasta 31 de diciembre, salvo cancelación anterior.

En el caso de que se produzca una transmisión, subrogación o cambio de crédito a otra entidad (claves T y V), en el ejercicio se hará constar:

— Clave «T»: se cumplimentará esta clave por la entidad de origen, transmitente o cedente del préstamo.

Se cumplimentará el/los registro/s, con los importes abonados por el deudor hasta la fecha de la transmisión, subrogación o cambio a otra entidad. En ningún caso se incluirá en dicho importe el correspondiente a la amortización final extraordinaria, es decir, a la cantidad pagada por la entidad de destino para cancelar la deuda. En este caso no será necesario cumplimentar el campo «Saldo pendiente a 31 de diciembre».

— Clave «V»: se cumplimentará esta clave por la entidad de destino o cesionaria del préstamo.

Se cumplimentará el/los registro/s, con los importes correspondientes desde la fecha de la transmisión, subrogación o cambio a otra entidad hasta 31 de diciembre, salvo cancelación anterior.

Este campo no se cumplimentará en el caso de operaciones de financiación no destinadas a la adquisición de un bien inmueble, tal y como establece el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, es decir, no se cumplimentará cuando el campo «Subclave Operación» tome el valor «5».»

*Tres.* El campo «Fecha de la operación», que ocupa las posiciones 103-110 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños de registro del modelo 181, contenidos en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— *Posiciones:* 103-110.
*Naturaleza:* Numérico.
*Descripción de los campos:* Fecha de la operación.

Se hará constar la fecha de constitución, o modificación del préstamo, crédito u otra operación financiera. Este campo se subdivide en 3:

103-106: Numérico Año.

107-108: Numérico Mes.

109-110: Numérico Día.

En las operaciones de Cancelación (campo «Origen de la Operación» con valor «C») en este campo se hará constar la fecha de constitución del préstamo, crédito u otra operación financiera, salvo que con posterioridad se haya informado una operación de modificación, en cuyo caso, se hará constar la fecha de modificación.

Aldaketa eta deuseztatze eragiketak aitortzen den zergaldian egin badira («J» letra «Eragiketaren jatorria» eremuan), maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren aldaketa data jarriko da eremu honetan.

Aitortzen den ekitaldian egindako bat-egite eta berregituratze sozietarioetan («K» edo «L» letra «Eragiketaren jatorria» eremuan), bai eta eskualdaketa, subrogazio edo entitate aldaketa kasuetan ere («T» edo «V» letra «Eragiketaren jatorria» eremuan), entitate aitortzaileak hasierako maileguaren emate data adieraziko du (sorburuko entitatean aitortzen ari zena).»

*Lau.* «Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoa» eremua (114-126 posizioak foru aginduaren II. eranskineko 181 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan –aitortuaren erregistroan–), honela geratzen da idatzita:

«— *Posizioak:* 114-126.
*Izaera:* Numerikoa.
*Eremuen azalpena:* Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoa.

Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoa jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

114-124: Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

125-126: Maileguaren, kredituaren edo bestelako finantza eragiketaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi dagokienean, zenbateko hori ez da hainbanatuko haien artean.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «M» edo «J» gakoa jarri bada eta finantzatutako zenbatekoa handitu bada, eragiketaren zenbateko osoa jarriko da, hasierako zenbatekoa eta handitutakoa barne.

«Eragiketaren gakoa» eremuan «V» gakoa jarri bada eskualdaketa, subrogazio edo entitate aldaketa bat egiteagatik, eta horrek maileguaren baldintzak aldatzen baditu zenbatekoa ere aldatuta, eragiketatik ondorioztatzen den zenbateko berria jarriko da.

Eremu hau bete gabe utziko da finantzaketa eragiketen xedea EZ bada izan ondasun higiezin bat eskuratzea, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, ezartzen duen bezala, hau da, bete gabe utziko da «Eragiketaren azpigakoa» eremuan «5» balioa jarri denean.»

*Bost.* «Kapitala amortizatzeagatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoa» eremua (127-139 posizioak foru aginduaren II. eranskineko 181 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan –aitortuaren erregistroan–), honela geratzen da idatzita:

«— *Posizioak:* 127-139.
*Izaera:* Numerikoa.
*Eremuen azalpena:* Kapitala amortizatzeagatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoa.

Ekitaldian zehar, edo eragiketa aldatzeko egunera arte, kapitala amortizatzeagatik ordaindu den zenbatekoa jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

En las operaciones de Modificación y cancelación en el ejercicio objeto de declaración (campo «Origen de la operación» con valor «J») en este campo se hará constar la fecha de modificación del préstamo, crédito u otra operación financiera.

En las operaciones de fusión y reestructuración societaria en el ejercicio objeto de declaración (campo «Origen de la operación» con valor «K» o «L»), así como en los casos de transmisiones, subrogaciones o cambios de entidad (campo «Origen de la operación» con valor «T» o «V») se hará constar por la entidad declarante la fecha de la operación de concesión del préstamo inicial (la que se venía declarando en la entidad origen).»

*Cuatro.* El campo «Importe del préstamo, crédito u otra operación financiera», que ocupa las posiciones 114-126 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños de registro del modelo 181, contenidos en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— *Posiciones:* 114-126.
*Naturaleza:* Numérico.
*Descripción de los campos:* Importe del préstamo, crédito u otra operación financiera.

Se consignará, sin signo y sin coma decimal, el importe del préstamo, crédito u otra operación financiera.

Los importes deben consignarse en euros.

Este campo se subdivide en dos:

114-124: Parte entera del importe del préstamo, crédito u otra operación financiera, si no tiene contenido se consignará a ceros.

125-126: Parte decimal del importe del préstamo, crédito u otra operación financiera, si no tiene contenido se consignará a ceros.

Este importe no se prorrateará en el caso de que el préstamo, crédito u otra operación financiera corresponda a varios declarados.

Si en el campo «Origen de Operación» se ha hecho constar la clave «M» o «J» y se ha ampliado el importe objeto de financiación, se hará constar el importe total de la operación, incluyendo el importe inicial y el importe ampliado.

Si en el campo «Clave de operación», se ha hecho constar la clave «V» por transmisión, subrogación o cambio de entidad, dando lugar a un cambio en las condiciones del préstamo que modifique el importe, se cumplimentará el importe total nuevo resultante de la operación.

Este campo no se cumplimentará en el caso de operaciones de financiación no destinadas a la adquisición de un bien inmueble, tal y como establece el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, es decir no se cumplimentará cuando el campo «Subclave Operación» tome el valor «5».»

*Cinco.* El campo «Importe abonado en el ejercicio en concepto de amortización de capital», que ocupa las posiciones 127-139 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños de registro del modelo 181, contenidos en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— *Posiciones:* 127-139.
*Naturaleza:* Numérico.
*Descripción de los campos:* Importe abonado en el ejercicio en concepto de amortización de capital.

Se consignará, sin signo y sin coma decimal, el importe abonado en el ejercicio o hasta la fecha en que se produzca la modificación de la operación, en concepto de amortización de capital.

Los importes deben consignarse en euros.

Este campo se subdivide en dos:

127-137: Kapitala amortizatzeagatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

138-139: Kapitala amortizatzeagatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi dagokienean, zenbateko hori ez da hainbanatuko haien artean.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «M» gakoa adierazi bada, aldaketaren egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «J» gakoa adierazi bada, eragiketa aldatu den egunetik hura deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da, deuseztapenaren unean ordaindutako zenbatekoa ere barne.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «C» gakoa adierazi bada, zergaldiaren hasieratik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da, deuseztapenaren unean ordaindutako zenbatekoa ere barne.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «K» gakoa adierazi bada bat-egite edo berregituratze sozietarioengatik, entitate xurgatuak edo sorburukoak zergaldiaren hasieratik bat-egite edo berregituratze sozietarioa egin arte ordaindutako zenbatekoa adierazi behar du.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «L» gakoa adierazi bada bat-egite edo berregituratze sozietarioengatik, entitate xurgatzaileak edo helmugakoak bat-egite edo berregituratze sozietarioaren egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa adierazi behar du.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «T» gakoa adierazi bada eskualdaketak, subrogazioak edo entitate aldaketak direla eta, zergaldiaren hasieratik eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin arte zordunak ordaindutako zenbatekoa jarriko da. Zenbateko horretan ez da inoiz sartuko amaierako aparteko amortizazioari dagokiona, hau da, helmugako entitateak zorra kitatzeko ordaindutako zenbatekoa.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «V» gakoa adierazi bada eskualdaketak, subrogazioak edo entitate aldaketak direla eta, eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin den egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

Eremu hau bete gabe utziko da finantzaketa eragiketen xedea ez bada izan ondasun higiezin bat eskuratzea, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, ezartzen duen bezala, hau da, bete gabe utziko da «Eragiketaren azpigakoa» eremuan «5» balioa jarri denean.»

*Sei.* «Ekitaldian ordaindutako interesen edo/eta gauzen bidezko ordainsarien zenbatekoa» eremua (140-152 posizioak foru aginduaren II. eranskineko 181 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan –aitortuaren erregistroan–), honela geratzen da idatzita:

«— *Posizioak:* 140-152.
*Izaera:* Numerikoa.
*Eremuen azalpena:* Ekitaldian ordaindutako interesen edo/eta gauzen bidezko ordainsarien zenbatekoa.

Ekitaldian zehar, edo eragiketa aldatzeko egunera arte, interesengatik edo gauzen bidezko ordainsariengatik ordaindutako zenbatekoa jarriko da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe. Aldi berean interesak eta gauzen bidezko ordainsariak ordaindu badira, bien batura jarriko da.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

127-137: Parte entera del importe abonado en el ejercicio en concepto de amortización de capital, si no tiene contenido se consignará a ceros.

138-139: Parte decimal del importe abonado en el ejercicio en concepto de amortización de capital, si no tiene contenido se consignará a ceros.

Este importe no se prorrateará en el caso de que el préstamo, crédito u otra operación financiera corresponda a varios declarados.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «M» se consignará el importe abonado desde la fecha de modificación hasta el final del ejercicio.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «J» se consignará el importe abonado desde la fecha de modificación hasta la fecha de cancelación, incluido el importe satisfecho en el momento de la cancelación.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «C» se consignará el importe abonado desde el inicio del período hasta la fecha de cancelación, incluido el importe satisfecho en el momento de la cancelación.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «K» por fusión o reestructuración societaria, se consignará por parte de la entidad origen o absorbida el importe abonado desde el inicio del periodo hasta la fecha de la fusión o reestructuración societaria.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «L» por fusión o reestructuración societaria, se consignará por parte de la entidad destino o absorbente el importe abonado desde la fecha de la fusión o reestructuración societaria hasta el final del ejercicio.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «T», en el caso de transmisiones, subrogaciones o cambios de entidad, se consignará el importe abonado por el deudor desde el inicio del periodo hasta la fecha de la transmisión, subrogación o cambio de entidad. En ningún caso se incluirá en dicho importe el correspondiente a la amortización final extraordinaria, es decir, a la cantidad pagada por la entidad de destino para cancelar la deuda.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «V», en el caso de transmisiones, subrogaciones o cambios de entidad, se consignará el importe abonado desde la fecha de la transmisión, subrogación o cambio de entidad hasta el final del ejercicio.

Este campo no se cumplimentará en el caso de operaciones de financiación no destinadas a la adquisición de un bien inmueble, tal y como establece el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, es decir, no se cumplimentará cuando el campo «Subclave Operación» tome el valor «5».»

*Seis.* El campo «Importe abonado en el ejercicio en concepto de intereses y/o retribución en especie», que ocupa las posiciones 140-152 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños de registro del modelo 181, contenidos en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«—*Posiciones:* 140-152.
*Naturaleza:* Numérico.
*Descripción de los campos:* Importe abonado en el ejercicio en concepto de intereses y/o retribución en especie.

Se consignará, sin signo y sin coma decimal, el importe abonado en el ejercicio o hasta la fecha en que se produzca la modificación de la operación en concepto de intereses y/o retribución en especie. En el caso de que se simultanee el abono de intereses y la retribución en especie, se consignará la suma de ambos.

Los importes deben consignarse en euros.

Eremu hau bitan banatzen da:

140-150: Interesengatik edo/eta gauzen bidezko ordainsariengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

151-152: Interesengatik edo/eta gauzen bidezko ordainsariengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi dagokienean, zenbateko hori ez da hainbanatuko haien artean.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «M» gakoa adierazi bada, aldaketaren egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «J» gakoa adierazi bada, aldaketaren egunetik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «C» gakoa adierazi bada, zergaldiaren hasieratik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «K» gakoa adierazi bada bat-egite edo berregituratze sozietarioengatik, entitate xurgatuak edo sorburukoak zergaldiaren hasieratik bat-egite edo berregituratze sozietarioa egin arte ordaindutako zenbatekoa adierazi behar du.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «L» gakoa adierazi bada bat-egite edo berregituratze sozietarioengatik, entitate xurgatzaileak edo helmugakoak bat-egite edo berregituratze sozietarioaren egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa adierazi behar du.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «T» gakoa adierazi bada eskualdaketak, subrogazioak edo entitate aldaketak direla eta, zergaldiaren hasieratik eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «V» gakoa adierazi bada eskualdaketak, subrogazioak edo entitate aldaketak direla eta, eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin den egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

Eremu hau bete gabe utziko da finantzaketa eragiketen xedea ez bada izan ondasun higiezin bat eskuratzea, Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, ezartzen duen bezala, hau da, bete gabe utziko da «Eragiketaren azpigakoa» eremuan «5» balioa jarri denean.»

*Zazpi.* «Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoa» eremua (153-165 posizioak foru aginduaren II. eranskineko 181 ereduaren erregistro diseinuen 2. motako erregistroan –aitortuaren erregistroan–), honela geratzen da idatzita:

«— *Posizioak:* 153-165.
*Izaera:* Numerikoa.
*Eremuen azalpena:* Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoa.

Ekitaldian zehar, edo eragiketa aldatzeko egunera arte, besteren finantzaketatik eratorritako gastuak direla-eta ordaindutako zenbatekoa jarri behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

153-163: Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Este campo se subdivide en dos:

140-150: Parte entera del importe abonado en el ejercicio en concepto de intereses y/o retribución en especie, si no tiene contenido se consignará a ceros.

151-152: Parte decimal del importe abonado en el ejercicio en concepto de intereses y/o retribución en especie, si no tiene contenido se consignará a ceros.

Este importe no se prorrateará en el caso de que el préstamo, crédito u otra operación financiera corresponda a varios declarados.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «M» se consignará el importe abonado desde la fecha de modificación hasta el final del ejercicio.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «J» se consignará el importe abonado desde la fecha de modificación hasta la fecha de cancelación.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «C» se consignará el importe abonado desde el inicio del período hasta la fecha de cancelación.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «K» por fusión o reestructuración societaria, se consignará por parte de la entidad origen o absorbida el importe abonado desde el inicio del periodo hasta la fecha de la fusión o reestructuración societaria.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «L» por fusión o reestructuración societaria, se consignará por parte de la entidad destino o absorbente el importe abonado desde la fecha de la fusión o reestructuración societaria hasta el final del ejercicio.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «T», en el caso de transmisiones, subrogaciones o cambios de entidad, se consignará el importe abonado desde el inicio del periodo hasta la fecha de la transmisión, subrogación o cambio de entidad.

Cuando en el campo «Origen de la operación» se haga constar la clave «V», en el caso de transmisiones, subrogaciones o cambios de entidad, se consignará el importe abonado desde la fecha de la transmisión, subrogación o cambio de entidad hasta el final del ejercicio.

Este campo no se cumplimentará en el caso de operaciones de financiación no destinadas a la adquisición de un bien inmueble, tal y como establece el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, es decir no se cumplimentará cuando el campo «Subclave Operación» tome el valor «5».»

*Siete.* El campo «Importe abonado en el ejercicio en concepto de gastos derivados de la financiación ajena», que ocupa las posiciones 153-165 del registro de tipo 2, registro de declarado, de los diseños de registro del modelo 181, contenidos en el anexo II de la orden foral, queda redactado en los siguientes términos:

«— *Posiciones:* 153-165.
*Naturaleza:* Numérico.
*Descripción de los campos:* Importe abonado en el ejercicio en concepto de gastos derivados de la financiación ajena.

Se consignará, sin signo y sin coma decimal, el importe abonado en el ejercicio o hasta la fecha en que se produzca la modificación de la operación en concepto de gastos derivados de la financiación ajena.

Los importes deben consignarse en euros.

Este campo se subdivide en dos:

153-163: Parte entera del importe abonado en el ejercicio en concepto de gastos derivados de la financiación ajena, si no tiene contenido se consignará a ceros.

EK\CV GAO-I-2022-07846

164-165: Besteren finantzaketatik eratorritako gastuengatik ekitaldian ordaindutako zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.

Mailegua, kreditua edo bestelako finantza eragiketa hainbat aitorturi dagokienean, zenbateko hori ez da hainbanatuko haien artean.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «M» gakoa adierazi bada, aldaketaren egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «J» gakoa adierazi bada, aldaketaren egunetik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «C» gakoa adierazi bada, zergaldiaren hasieratik eragiketa deuseztatu arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «K» gakoa adierazi bada bat-egite edo berregituratze sozietarioengatik, entitate xurgatuak edo sorburukoak zergaldiaren hasieratik bat-egite edo berregituratze sozietarioa egin arte ordaindutako zenbatekoa adierazi behar du.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «L» gakoa adierazi bada bat-egite edo berregituratze sozietarioengatik, entitate xurgatzaileak edo helmugakoak bat-egite edo berregituratze sozietarioaren egunetik ekitaldia amaitu arte ordaindutako zenbatekoa adierazi behar du.

«Eragiketaren jatorria» eremuan «T» gakoa adierazi bada eskualdaketak, subrogazioak edo entitate aldaketak direla eta, zergaldiaren hasieratik eskualdaketa, subrogazioa edo entitate aldaketa egin arte ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

